

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAREN OROITIDAZKIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA  
2016. URTEA



Kontratuen inguruko Errekurtsoen  
Administrazio Organoa  
Órgano Administrativo  
de Recursos Contractuales

# KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAREN OROTIDAZKIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA  
2016. URTEA



**Kontratuen inguruko Errekurtsoen  
Administrazio Organoa**  
Órgano Administrativo  
de Recursos Contractuales

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren  
*Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

**Argitaraldia:** 1.a, 2017ko uztaila

**Ale-kopurua:** 50 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Ogasun eta Ekonomia Saila

**Internet:** [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

**Diseinua:** EkipoPO

**Inprimaketa:** Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua  
C/ Donostia-San Sebastián 1, Vitoria-Gasteiz 01010

**Lege gordailua:** VI 342-2017

# AURKIBIDEA

I. MEMORIAREN XEDEA .....	7
II. OSAERA ETA BALIABIDEAK 2016AN .....	9
II.1. OSAERA.....	9
II.2. AURREKONTUA .....	9
III. ARDUERA OSAGARRIA 2016AN.....	11
III.1. KEAOREN WEBGUNEA.....	11
III.2. ERREKURTSOAK KUDEATZEKO PROGRAMA INFORMATIKOA .....	11
III.3. PRESTAKUNTZA-JARDUERA.....	12
III.4. DIBULGAZIO-JARDUERA.....	12
III.5. ERREKURTSOAK EBAZTEKO BESTE ADMINISTRAZIO-ORGANO BATZUEKIN KOORDINAZIOA.....	12
IV. KEAO-K 2016AN IZANDAKO JARDUERARI BURUZKO DATUAK .....	15
IV.1. AURKEZTUTAKO ERREKURTSOEN ETA EMANDAKO EBAZPENEN GUZTIZKO KOPURUAK, URTEAREN ARABERA .....	15
IV.2. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, BOTERE ESLEITZAILEAREN ARABERA .....	16
IV.3. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, KONTRATU MOTAREN ARABERA .....	17
IV.4. EHUNEKOAK, ERREKURTSOA IPINITAKO EGINTZAKO .....	18
IV.5. 2016AN EMANDAKO EBAZPENEN IZAERA.....	19
IV.6. ERREKURTSOAK, HILABETEAREN ETA URTEAREN ARABERA.....	19
IV.7. EBAZPENA EMATEKO EPEA .....	20
IV.8. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAK ETA EMANDAKO EPAIEN IZAERA .....	20
V. 2016KO EBAZPENIK GARRANTZITSUENAK .....	25



# I. MEMORIAREN XEDEA

Oroitidazki hau baino lehenago argitaratutako beste oroitidazkietan adierazi bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa (aurrerantzean, KEAO) Euskal Autonomia Erkidegoko 2011rako aurrekontu orokorren Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren bidez sortu zen (abenduarien 23ko 5/2010) administrazio-organo gisa, haren esparru objektibo eta subjektiboan bildutako kontratu publikoetan hartutako erabaki jakin batzuen legezketasuna kontrolatzeko. Hori dela eta, tankera horretako organoek euren eskumen-esparruan izaten dituzten ezaugarriak ditu, hala nola bere eskumenak erabiltzeko independentzia funtzionala (lotura hierarkikorik eza edota inoren aginduak bete behar ez izatea), titularraren espezializazioa eta agintaldiak irauten duen bitartean titularra aldatu ezina.

Botere esleitzaleei eta operatzaile ekonomikoei denbora-tarte jakin batean izandako jarduerari buruzko informazio estatistikoa emateko xedez prestatu eta argitaratu da KEAOren urteko oroitidazkia (kasu honetan, 2016ari dagokiona emateko) eta, horrez gainera, agindutako funtzioa betetzean bideratu diren giza baliabideei eta baliabide ekonomikoei buruzko informazioa eskaintzen du.

Oroitidazkiarekin batera, beste dokumentu bat argitaratzen da, Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren doktrina; han, administrazio-organoak egin dituen pronuntziamendu garrantzitsuenen laburpenak daude jasota modu sistematikoan, hasi jarduerari ekindako urtetik eta 2016raino. Era berean, esandako agirian, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean KEAOren zer ebazpeni jarri zaien errekurtsoa agertzen da zerrendatuta, 2017ko martxoaren 31ra bitartean jakindako erabakien emaitza eta guzti.






## II. OSAERA ETA BALIABIDEAK 2016AN

### II.1. OSAERA

KEAOren egiturak ez du batere aldaketarik izan 2016an, eta iazko egitura bera dauka. Honako hauek osatzen dute:

- organoaren titularrak;
- aholkularitza juridikoaren bi arduradunek;
- organoaren idazkaritzaren ardura duen aholkulari juridiko batek;
- administrari batek.

Hona hemen egituraren organigrama:



### II.2. AURREKONTUA

KEAO kontratazioaren alorrean eskumena duen sailari atxikita dago: Ogasun eta Ekonomia Sailari, alegia. Jarduera garatzeko bitarteko materialak (batik bat programa informatikoaren eta webgunearen mantentze-lanetatik eratorriak) Sail horretara bideratutako aurrekontuaren kontura ordainduko dira.

KEAOkO langileen gastuak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan zehaztuta daude, eta 2016an guztira 334.430,37 €-ko zenbatekoa izan dute, guztia ere 6114 aurrekontu-programako 5. sekzioko 09 zerbitzuaren kargura, 2016ko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioan ikusten den moduan.

Aurreko urteetan ez bezala, 2016an ez da diru-sarrerarik izan.







## III. JARDUERA OSAGARRIA 2016AN

### III.1. KEAOREN WEBGUNEA

KEAOk webgune bat du Euskadiko kontratazio publikoaren atarian, <<http://www.contratacion.euskadi.eus>> helbidean; haren bidez jartzen da harremanetan elektronikoki botere esleitzailleekin eta errekurtsuak aurkezten dituzten eragile ekonomikoekin.

Webgune horretan bertan argitaratzen dira ebazpenak, bilaketak hainbat irizpideren arabera egiteko moduan; era berean, botere esleitzailleentzat eta eragile ekonomikoentzat interesgarri izan litezkeen bestelako dokumentuak ere argitaratzen dira atarian, hala nola kontratu publikoekin lotutako erabaki jakin batzuen berrikuspen-prozedura bereziei eragiten dieten arauen zerrenda, ebazpen esanguratsuenak biltzen dituen laburpen sistematikoa edota kontratu publikoei buruzko errekurtsuak ebazteko auzitegiek egindako dokumentua (*Los efectos jurídicos de las directivas de contratación pública ante el vencimiento del plazo de transposición sin nueva ley de contratos* izenburua duena, euskaratu gabe).

### III.2. ERREKURTSOAK KUDEATZEKO PROGRAMA INFORMATIKOA

Errekurtsu berezien prozedurak, erreklamazioak eta sortzen diren deuseztasun-auziak kudeatzeko, KEAOk aplikazio informatiko bat dauka (Y96A) webgunearen barruan. Honako funtzio hauek ditu:

- Botere esleitzailleekin loturik.

Botere esleitzailleek kontratazio-espeditentea helarazi behar dute; alegia, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 46.2 artikulua edota Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 105.2 artikulua zehaztutako txostena, baldin eta hura kontratazio-organoaren aurrean jarritakoa balitz. Behar bezala digitalizatuta aurkeztu beharko da, konfiantzazko inguru batean dagoen aplikazio informatikoan, eta espedienteen izapideak edozer egoeratan ikusi ahal izango dira. Era berean, botere esleitzailleak alta eta baja eman diezaike KEAOn haren izenean baimendutako langileei aplikazio informatikoan, edota aldatu.

- Errekurtsogile eta interesdunekin loturik.

Pertsona juridiko diren errekurtsogile eta interesdunek, urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2.a) artikuluan ezarritakoa aplikatuz, KEAOn harreman elektronikoa izan behar dute; horretarako, elektronikoki ipini behar dute kontratazioko errekurtsu berezia, erreklamazioa edota deuseztasun-auzia, eta alegazioak formulatu behar dituzte, ekindako prozeduretan interesdun bezala pertsonatuz gero. Halaber, espedienteen izapidetze-egoera eta jakinarazpenak modu

telematikoan ikusten dira. Operadore ekonomikoa pertsona fisikoa izanez gero, nahien duen komunikazio-kanala aukeratu ahal izango du, dela telematikoa, dela posta bidezkoa.

### III.3. PRESTAKUNTZA-JARDUERA

KEAOk ikastaro bat eman du 2016an, honako helburu hauekin:

1. Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa aurkeztea, jarduera-esparrua eta sortuz geroztik egindako lana azaltzeko.
2. Kontratazio-prozeduren kudeatzaileak ezagutaraztea, baita kontratazioen inguruko erabakiak berrikusteko araubide berezia eta, zehazkiago, kontratazioko errekurtsu berezien prozedura ere.
3. Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren doktrina azaltzea, ikuspegi batez ere praktikoa baliatuta.

Ikastaro hau elkarrekin antolatu zuten IVAPek eta EUDELeK, eta kontratuak prestatzeko, izapidetzeko eta esleitzeko prozesuetan inplikaturako langile juridikoei zuzenduta zegoen (udaletako idazkariak, kontu-hartzaileak eta kontratazioekin lotutako gainerako langileak). Bilbon egin zen 2016ko martxoaren 7an, 8an eta 9an.

### III.4. DIBULGAZIO-JARDUERA

KEAoren webguneko «Memoriak eta doktrina» atalean, 2011n martxan ipini zenetik izan diren ebazpen garrantzitsuenen bilduma ageri da, KEAoren webgunean dauden ebazpenak bilatzeko sailkapen-irizpideen arabera multzokatuta. Dokumentu hori osatzeko, 2016ko ebazpenik esanguratsuenak ere jaso dira.

### III.5. ERREKURTSOAK EBAZTEKO BESTE ADMINISTRAZIO-ORGANO BATZUEKIN KOORDINAZIOA

- KEAOk *Los efectos jurídicos de las directivas de contratación pública ante el vencimiento del plazo de transposición sin nueva ley de contratos* dokumentua prestatzen parte hartu du (euskaratu gabe oraindik). Esandako agiria 2016ko martxoaren 1ean onartu zuten Madrilen egindako bilera batean; han izan ziren Auzitegi Zentraleko ordezkariak eta ordura arte sortutako eta zuzkitutako auzitegi autonomiko guztiak (Madril, Andaluzia, Aragoi, Kanariar Uharteak, Gaztela eta Leon, Katalunia, Nafarroa eta Euskadi). Dokumentua kontsultatzeko, esteka honetara jo daiteke: <[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/memoria\\_y\\_doctrina\\_oarc/es\\_def/adjuntos/Efectos\\_juridicos\\_de\\_Directivas.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/memoria_y_doctrina_oarc/es_def/adjuntos/Efectos_juridicos_de_Directivas.pdf)>.
- 2016ko azaroaren 24an, Sevillan, Andaluziako Juntaren Kontratuen inguruko Errekurtsoen

Administrazio Auzitegiak deituta, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegiak Koordinatzeko V. Bilera egin zuten. Bertan izan ziren KEAoren ordezkariak, Auzitegi Zentraleko eta autonomia-erkidegoetako auzitegietako beste ordezkari batzuekin batera (Andaluzia, Aragoi, Kanariar Uharteak, Gaztela eta Leon, Katalunia, Extremadura, Madril eta Nafarroa).



# IV. KEAO-K 2016AN IZANDAKO JARDUERARI BURUZKO DATUAK

## IV.1 AURKEZTUTAKO ERREKURTSOEN ETA EMANDAKO EBAZPENEN GUZTIZKO KOPURUAK, URTEAREN ARABERA

Orotara erregistratutako errekurtsoen kopuru osoa eta 2016an emandako ebazpenen kopurua honako hau izan da:

- Aurkeztutako errekurtsoen kopurua, guztira: 158


2016ko urtarrilaren 1etik eta 2016ko abenduaren 31ra artean ipinitako errekurtsuak 2015ean baino hamar gutxiago izan dira (168 erregistratu baitziren).

- Ebazpenen kopurua, guztira: 143

2016ko urtarrilaren 1etik 2016ko abenduaren 31ra emandakoak biltzen ditu. Ebazpenen artean, ez da ageri EB 2016/108 errekurtsuari dagokiona, oraindik ere ez baitago ebatzita KEAOk Europar Batasuneko Justizia Auzitegian 2016ko urriaren 28an egindako erabaki prejudizialaren eskaera (C-546/16 auzia).

Halaber, 2016an aurkeztutako errekurtsu kopurua murriztu baldin bada ere, 2015ean emandako ebazpen kopuru bertsua izan da (146 ebazpen izan ziren guztira).

Honako grafiko honetan dago jasota errekurtsuen kopuruaren bilakaera, jarduerari ekin zion urtetik aurrera urteka sailkatuta:




## IV.2. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, BOTERE ESLEITZAILEAREN ARABERA

«Sozietate publikoak» atalean, tokiko sektorekoak zein Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ageri dira. Bestalde, «Beste administrazio publiko batzuk» kontzeptuaren barruan, Euskal Herriko Unibertsitatea, hainbat administrazio osatutako partzuergoak eta udalerrien mankomunitateak ere jasotzen dira.


Taula honetan, botere esleitzaileraren bakoitzaren kontra aurkeztutako errekurtsoen ehunekoak ageri dira:

Botere esleitzaileraren arabera




Ikusten da udalen eta udal-erakunde autonomikoen aurkaratutako kontratuen ehunekoa handitu egin dela; hala, 2015ean % 39 izatetik 2016an % 45 izatera igaro dira. EAEko administrazio orokorraren eta instituzionalaren kontratu aurkaratuak, berriz, murriztu egin dira, 2015ean % 43 izan baitziren eta 2016an, berriz, % 36. Bestalde, sozietate publikoen eta beste administrazio publiko batzuen aurkaratutako kontratuek ehuneko bera izan zuten 2016an eta 2015ean: % 13 lehendabizikoek eta % 7 bigarrenen.

Botere esleitzaileraren arabera errekurtsioek zer bilakaera izan duten ikusteko, koadro honetan daude jasota KEA Oren sei urteko jarduneko datuak:




### IV.3. ERREKURTSOEN EHUNEKOAK, KONTRATU MOTAREN ARABERA

Honako grafiko honetan, kontratu motaren araberako errekurtsoen ehunekoa dago jasota; zerbitzu-kontratuak izan dituzte nabarmen errekurtsio gehien, kontratuen % 73k, alegia. Ondoren, tarte handiarekin, hornidura-kontratuak, % 24. Era berean, aipatzekoa da obra-kontratuen aurka aurkeztutako errekurtsorik apenas izan dela. Nabarmendu behar dugu, halaber, ehuneko horiek oso antzekoak direla 2015ekoekin alderatuta.



Hurrengo grafikoan ikus daitezkeen moduan, KEA Oren sei urteko ibilbidean aurkaratutako kontratu motak batez ere zerbitzuenak eta hornidurenak izan dira. Gainerako kontratuak (hala nola obretakoak, obren esleipenenak, zerbitzu publikoak kudeatzekoak edota sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzakoak) ez daude hurrengo koadroan jasota, oso gutxi baitira haiekin lotuta jasotako errekurtsioak.







#### IV.4. EHUNEKOAK, ERREKURTSOA IPINITAKO EGINTZAKO

2016an errekurtsio gehien izan duten egintzak kontratu-esleipenak izan dira: errekurtsioa ipinitako egintzen % 53. Ondoren, iragarkiei, pleguei eta bestelako dokumentuei egindakoak, % 37. «Beste batzuk» atalaren barruan, errekurtsorik izan ez duten egintzak ageri dira, hala nola lizitatuak onartzeko akordioak edota esleipen-proposamenak. Azpimarratu behar da nabarmen jaitsi dela kontratazio-mahaietatik baztertze akordioei ipinitako errekurtsioen ehunekoak; izan ere, 2015ean % 21 izatetik 2016an % 8 izatera igaro da.

Errekurritutako egintza




Hurrengo grafikoan ikus dezakegun moduan, KEAOk, sei urteko jardunean, gehien aurkaratu duen egintza esleitzeko erabakia izan da, nahiz eta urteek aurrera egin ahala kontratuaren pleguen kontrako errekurtsioek ere gora egin duten.




#### IV.5. 2016AN EMANDAKO EBAZPENEN IZAERA

Honako grafiko honetan dago jasota 2016an emandako ebazpenen izaera, eta nabarmentzekoa da alboratutako errekurtsoen ehunekoa eta ontzat hartutakoena aurreko urteetako antzekoa dela. Onartu gabeko errekurtsoen ehunekoari dagokionez, 2014an % 10 murriztu zen, baina hurrengo ekitaldietan handitzen joan zen; izan ere, 2015ean urteko ebazpen guztien % 19 izan zen, eta 2016an, berriz, % 21era igo ziren.



#### IV.6. ERREKURTSOAK, HILABETEAREN ETA URTEAREN ARABERA

Honako grafiko honetan, KEAO jardunean izan den urteetan (2011tik 2016ra bitartean) aurkeztutako errekurtsoen kopuruak ageri dira, urteen eta hilen arabera sailkatuta:



## IV.7. EBAZPENA EMATEKO EPEA

Errekurtsoak eta erreklamazioak ebazteko batez besteko epea 2016an 28 egun naturalekoa izan da, kontratazio-espeditentea KEAOn jasotako egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori 37 egun naturalekoa da errekurtsua aurkezten denetik zenbatzen hasita; horrek zera esan nahi du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 46.2 artikulua aipatzen dituen espeditentea eta txostena bidaltzeko batez besteko epea 9 egun naturalekoa dela.

Kontuan izanik 2016an errekurtsua bide telematikoz aurkezteko eta izapidetzeko bidea ezarri dela, ebazpena emateko denbora zenbatzeko modua desberdina da aurreko urteekin alderatuta; izan ere, zenbaketa errekurtsua KEAOn erregistratzen zenetik aurrera egiten zen (errekurtsua organoan erregistratzen zen eguna edota kontratazio-organoa bidalitako errekurtsua jasotzen zen eguna, hain zuzen ere).

## IV.8. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAK ETA EMANDAKO EPAIEN IZAERA

Honako koadro hauetan, errekurtsu bereziekin, erreklamazioekin edota deuseztasun-auziekin lotuta emandako ebazpenen kontra ipinitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen kopuru osoa ageri da (hain zuzen ere 2016ko abenduaren 31ra bitartekoak, eta 2017ko martxoaren 31ra bitartean informatutakoak). Hona hemen esandako datara bitartean KEAOn ipinitako errekurtsu guztien gaineko ehunekoa:

2011-2016 aldia

Urtea	Admin. Auzi-errek. Guztizko kopurua	Kontratuen ing. Errk. Guztizko kop.	%
2011	5	68	7,35
2012	3	125	2,40
2013	10	128	7,81
2014	22	169	13,02
2015	14	168	8,33
2016	21	158	13,29
<b>Guztira</b>	<b>75</b>	<b>816</b>	<b>9,19</b>

Honako hau da KEAOk ezagututako erabaki judizialen izaera, 2017ko martxoaren 31ra bitartean, urteka:

Izaera	2011	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira	Admin. Auzi-errek. barruko %	% Kontratuen ing. Errk. barruko (816)
Baietsiak	0	0	3	8	3	0	14	18,67	1,72
Neurri batean baietsiak	2	1	0	1	1	0	5	6,67	0,61
Ezetsiak	2	2	3	4	3	0	14	18,67	1,72
Atzera eraginak	1	0	3	6	5	2	17	22,67	2,08
Onartu gabekoak	0	0	1	0	0	0	1	1,33	0,12
Prozegura iraungita	0	0	0	1	0	0	1	1,33	0,12
Erabakirik ez	0	0	0	2	2	19	23	30,67	2,82
<b>Guztira</b>	<b>5</b>	<b>3</b>	<b>10</b>	<b>22</b>	<b>14</b>	<b>21</b>	<b>75</b>	<b>100,00</b>	<b>9,19</b>

2016ra bitartean aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtoak erabat edo zatika kontuan hartzen dituzten epaien kopuru osoa orain arte aurkeztutako errekurto bereziekin, erreklamazioekin eta deuseztasun-auziekin alderatzen badira, ikusiko dugu KEAOn erabakien % 97,67k ez dutela errekurtsorik izan, edota, izan badute ere, ez dutela kontrako epairik jaso 2017ko martxoaren 31ra bitartean (baieztapen-tasa). Ehuneko horrek 2016ko abenduaren 31ra bitartean aurkeztutako errekurto berezien, erreklamazioen eta deuseztasun-auziei egiten die erreferentzia, eta ez ebazpen kopuruari (azken kopuru hori txikiagoa da, haietakoren batek errekurtoak metatuta edukitzeagatik).

Urteen arabera, honako hau da ehunekoa:

- 2011. urtea ..... % 97,06
- 2012. urtea..... % 99,20
- 2013. urtea..... % 97,66
- 2014. urtea..... % 95,27
- 2015. urtea..... % 96,87
- 2016. urtea..... % 100

Kontuan izan behar da 2014tik eta 2015etik bi errekurtsu epaia jasotzeko zain daudela. Halaber, nahiz eta 2016an administrazioarekiko 21 auzi-errekurtsu ezarri diren, orain artean bi erabakiren berri izan da bakarrik: bi atzera-egite, hain zuzen.

Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian ipinitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen kopurua dago zehaztuta, baita organo horrek jarduera-urteetan emandako ebazpenak ere. Era berean, 2016ko martxoaren 31ra bitartean jakinarazitako epaien zentzua ere azaltzen da, ebazpena aurkaratuta daukan errekurtsu bereziaren urtearen arabera multzokatuta.

### 2011. urtea

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua: .....5
- Izaera
  - Baieste partziala .....2
  - Ezestea .....2
  - Atzera-egiteak.....1
- Erabaki kopurua orotara .....5

### 2012. urtea

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua: .....3
- Izaera
  - Ezestea .....2
  - Baieste partziala .....1
- Erabaki kopurua orotara .....3

### 2013. urtea

• Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua: .....	10
• Izaera	
–Ezestea .....	3
–Atzera-egiteak.....	3
–Onartu gabeak .....	1
–Baietsiak .....	3
• Erabaki kopurua orotara .....	10

### 2014. urtea

• Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua: .....	22
• Izaera	
–Atzera-egiteak.....	6
–Prozedura iraungita.....	1
–Baietsiak .....	8
–Baieste partziala .....	1
–Ezestea .....	4
• Erabaki kopurua orotara .....	20
• Ebazteke .....	2

### 2015. urtea

• Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua: .....	14
• Izaera	
–Atzera-egiteak.....	5
–Baietsiak .....	3
–Baieste partziala .....	1
–Ezestea .....	3
• Erabaki kopurua orotara .....	12
• Ebazteke .....	2

## 2016. urtea

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua: .....21
- Izaera
  - Atzera-egiteak..... 2
- Erabaki kopurua orotara ..... 2
- Ebatzi gabe.....19

## V. 2016KO EBAZPENIK GARRANTZITSUENAK

2016ko ebazpenik garrantzitsuenei buruzko laburpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian errekurtsua ipinitako KEAoren ebazpenen zerrenda eta haiei buruzko erabakia *Kontratu en inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren doktrina* izeneko dokumentuan daude zehaztuta, hain zuzen ere, KEAoren webguneko «Memoriak eta doktrina» atalean.





